

PILOTA

«Ladutxek jokatzeko badu, guk ez»

Lau pilotari azkeneraino joateko prest daude Baionan ez aritzeko

Baionako festetan jokatu ohi den Moderne trinketeko esku pilotako Masterrari uko egitea erabaki dute J.C. Biscouby, B. Intxauspe, P. Carricart eta F. Carricart pilotariak, «Ladutxe profesionala baita». Jean Marie Mailharro antolatzaileak bere jarrerari tinko eutsiko diola azaldu du, eta Ladutxe «erretiratzeko prest» agertu da.

HUR GOROSTIAGA / BAIONA

Ez da mota honetako arazoa sortzen den lehenengo aldia Iparraldeko pilota munduan. Iaz ere iskanbila bera izan genuen Arrangoitzeko (Lapurdi) trinketeko txapelketan. Bertan Panpi Ladutxek jokatu zuen, eta Jean Claude Biscouby, Beñat Intxauspe eta Philippe eta Francis Carricart anaiak erretiratu egin ziren. Oraingoan ere lau pilotari independenteek iazko jarrera bera hartu dute, Iparraldeko profesional bakarrak jokatzeko gero, eurek ez dutela jokatzeko jakitera eman. Aranburu, Martiarena eta Bideondo, berriz, «Ladutxe erretiratzeko bada, gu ere bai» esaten ari dira.

Denen tartean Jean Marie Mailharro Masterraren antolatzaileak, «hasierako ideiarekin aitzina segitzea» erabaki du, eta «jokatu nahi ez duenak, ez dezala joka» argudiatu. Lau jokalaririk jokatzeko ez balute, Agerre eta Borda prest leudeke utzitako lekua betetzeko.

EGUNKARIARI egindako adierazpenetan Francis Carricartek «hartutako jarrerari gogor eutsiko» diola adierazi du, «pilotari independenteen zirkuituetan profesionalak sartzen hasiz gero, independenteek berezkoa duten



Panpi Ladutxek saltsan ez du sartu nahi.

EDURNE KOCH

eremua galduko bailukete». Pilotari honek argi eta garbi utzi nahi izan du Panpiren aurka ez daukala ezer eta harekin jokatzeko prest dagoela «baina ez horrelako torneotan». Jean Marie Mailharroren «probokazioa» ere salatu nahi izan du pilotariak, «Sud-Ouest-en» agertutako artikulu batean egindako adierazpenengatik, «hastapen-hastapenetik giroa pozoitu baitu». Hazpandarraren ustez beraien ordezkutuko diren jarrera «ez da oso logikoa, beraiek ere pilotari independenteak baitira, eta jokatzeko erabakia beraien aurkako bihur baitaiteke». Hala ere «ulertzekoa» dela adierazi zuen «edozein pilotarientzako ohorea

baita Panpi Ladutxe bezalako jokalaririk handi baten aurka aritzea». Antolatzaileek omen dute giltza.

LADUTXE: Panpi Ladutxek berriz, «ZER EGIN EZEAN NAGO» «zer egin ezean» dagoela adierazi du. «Alde batetik Moderneren antolatzaileak beste zenbait pilotaririkin batera txapelketan parte hartzeko eskatu dit, eta bestalde lau pilotarik ez dutela jokatzeko adierazi dute». Askaindarrak guztiz penaturik agertu zen atzo «iaz Arrangoitzen gertatutakoa errepikatzen ari gara baitago». Uko egin duten jokalaririk jarrerari buruz «kirol aldetik gaizki» da-

goela irizten dio Ladutxek, «beraiek baino hobea denaren aurka jokatzeko beldur baitira». Gainera bere arabera, Master deitzen diren txapelketetan «munduko onenak» ere deitu ohi dira, eta arazo honen zergatia urrunegi joan dela gehitu zuen. Panpik bere burua oso leku txarrean ikusten du eta erretiratzeko prest ere azaldu da: «Nik ez dut nahi saltsarik eta erretiratzeko prest nago. Baina erretiratzeko bada, babesleak alde egiteko mehatxua egin du eta nire aurka jokatzekoak diren beste pilotariak ere berdin egingo lukete».

Pilotaren Federazioko lehendakariaren esanetan, «legez Ladutxek eskubide osoa du honelako txapelketetan aritzeko, nahiz eta berak estatutu profesionala izan». EGUNKARIARI egindako adierazpen hauetan argi geratu da Panpi Ladutxek ez duela izaera independentea Iparraldean, jokalaririk anitzek uste bezala, baina hala ere joka dezakeela.

BATZUK ASKAINDARRAREN ALDE

Aranburu, Martiarena eta Bideondo prest daude Moderneko Masterraren aritzeko, eta erretiratzeko lau pilotaririk jarrera «haurkeria» dela adierazi du. Hiru hauek ere pilotari independenteak dira eta besteen argudioak zentzugabetzat dituzte. «Panpi erretiratzeko bada gu ere erretiratzeko gara, ez baitugu bidezkoztat jotzen lau pilotari horien jarrera». Bideondoren ustez «nagusia da nagusi, eta berak erabakiko du zer egin».

Ildo beretik Borda eta Agerrek Masterra jokatzeko dutela adierazi dute, «Mailharrok hala esaten badie». Bi jokalariek esandakoaren arabera, oraindik ez dute zuzenean antolatzailearekin hitz egin, eta haren deia zain dute.

JAIALDIAK


Gaurko partiduak

EUSKAL. 16.00. Iñigo - Soto / Bitoria - Lizaso. Finalerdia: Zubeldia - Eizagirre. Elizalde - Aizpuru/Ollo - M. Lekunberri - P. Lekunberri.

LABRIT. 11.30. Bengoetxea IV - Elkorro / Ladutxe - Arretxe. Alustiza - Maiz II / Titin III - Errandonea.

BERRIZ. 20.30. Afizionatuak. Larrinaga / G. Lopez. Puente / J. Lopez. Biasteri - Urien II. Varela I / Narciso. Solozabal I / Oregi.

ESKUBALOIA



Jose Tajadura. JOXE LACALLE

Tajadura: «Geroa jada ez da horren ilun ageri»

IRUÑEA

Fermin Tajadura San Antonio Eskubaloia taldeko lehendakariak eta Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko lehendakariordeak bilera izan zuten atzo goizeko haizketan. Gai bakarra aztertu zuten bilera horretan, San Antonio taldearen geroa hain zuzen ere.

Bileraren amaieran lehendakari antoniarrak adierazi zuenez, «San Antonioren geroa orain ez da bilera egin aurretik bezain ilun ageri». Jakina denez, babeslerik topatzen ez duenez eskubaloia talde nafarra desagertzear dago, eta aurki konponbiderik aurkitzen ez bada Asobal Ligan duen tokia salduko du. Tajadura Miguel Sanz konbentzitzen saiatu zen horrelakorik gerta ez dadin. «Nafarroak, Osasuna ezik, bere kirol talderik garrantzitsuena gal dezake, eta horretaz gain goi mailako kirolarentzat galera handia izan daiteke. Miguel Sanzek bere esku dauka hau gerta ez dadin egin beharreko gauzak egitea, edo behintzat horretan saiatzea, eta saiatu, saiatuko dela esan digu».

Guzti hori dela eta baikor ageri zen Tajadura, baina hala eta guztiz ere ez zen antoniarrak Asobal Ligan segituko dutenentz esatera ausartu. Itxaropenak Sanzek zabal litzakeen bideetan oinarriturik daude. «Gobernukoak dauden babesle bat lortzeko, eta horrek zerbait atera daitekeela uste dute». Gobernuak antoniarraren balizko babesleek zergen zama arintzea proposatu omen die. «Goi mailako kirola indartzeko zenbait neurri aztertu ditugu. Horien artean zergen gutxitzea aipatu dugu, eta bide onean gaudela uste dute». Sanferminak medio, galdione bat izanen da Nafarroako Gobernuaren egiten ari den negoziaketan, baina Sanferminak amaitu bezain laister erantzun behar eman beharko dute balizko babesleek, eta orduan erabakiko den ala ez.

Faborito handirik gabeko San Fermin txapelketa hasiko da gaur Labriten


IRUÑEA

Gaur hasiko da Iruñean San Fermin torneoa. Aurreneko jardunaldi honetan bi norgehiagoka jokatzeko dira. Lehena, goizeko 11.30etan egingo da eta aurrez aurre Bengoetxea IV-Elkorro eta Ladutxe-Arretxe bikoteak izango ditugu. Partidu honen ostean, bigarren finalerdia jokatzeko da. Lehian, Alustiza-Maiz eta Titin III-Errendonea. Bi partiduok Nafarroako hiriburuko Labrit pilotalekuan izango dira. Partidu biak ikusi ahal izateko, zaletuak 2.000 pezeta (90 libera) ordaindu beharko dituzte bakoitzagatik.

Bi finalerdi hauetako garaileek, datorren igandean jokatzeko dute finala. ETBko kamerak bertan izango dira. Zaila da esatea zein bikote sailkatuko den final handi horretarako, lau bikoteak ere pare-parekoak baitira. Denan, Titin izugarri dabil aspaldi honetan eta atzelari sendoa duenez lagun, hots, Errandonea, kontuan hartzekoa izango da. Ladutxe eta Arretxek osaturiko bikotea ere garrantzitsua da.

Finala, esan bezala, hilaren 11an, igandea, jokatzeko da. Baina bi egun lehenago Euskal Herriak ezagutu duen txapelketaren handienaren jokoz gozatzeko aukera izango da Iruñean, bertan Julian Retegik jokatzeko duelako.

Finala, esan bezala, hilaren 11an, igandea, jokatzeko da. Baina bi egun lehenago Euskal Herriak ezagutu duen txapelketaren handienaren jokoz gozatzeko aukera izango da Iruñean, bertan Julian Retegik jokatzeko duelako.



Inaxio Errandonea. C. VILLAGRAN